

ZER BERRI OSKAR GABILONDOK ALKATE KARGUA HARTU ZUEN  
KULTURA HAINBAT KULTURA JARDUERA ANTOLATU DIRA GABONETARAKO

# piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 102. alea 2004ko abenduaren 24a


POWSTW NSZUOK 15



Hamabostaldi  
kulturala gztetxian



*Zorionak eta urte berri on!*



Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean

# GOL

GOL industriak S.A.

Sagar Erreka, 19 45 PK

Telefonia: 34 943 75 21 00

Faxa: 34 943 75 17 12

20590 SORALUZE

## Ion Murgizu Pinturak

- Margoketa orokorrean -

Empapelatuak,

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

Telefonia 943751324

Mugikorra 652777030

Ezoziko etorbidea 24 2 behea

20590 Soraluze





## Tokiko 21

ROKE AKIZU

Ingurugiroaren suntsidura, elur-jausiek eragiten dituzten hondamenekin konparatu daiteke. Ez dago gelditzerik (ez behintzat epe motz ertainera), bai osteria geldiaraztea, desbideratzea eta bere eragin kaltegarria balio jasan-garrietara murriztea.

Elur-jausi baten ondorioak ikusteko paradariek eduki baduzue, ohartuko zineten zelako erreztasunarekin mugitu izan diren izugarritzko dimentsiodun harriak eta basoan utzitako orbana, diametro handiko izei eta pagoak zotzak izango balira bezala puskatuz eta bere bidea oztopatzen duten errepede edo herriak suntsituz. Elur-jausien kontrako estrategiak anitzak dira: landareria bermatu, hormigoizko dikeak, sareak, etab; guztiak, ondorio kaltegarri horiek pairatzeko, jakinda ez dagoela soluzio magiko edo behin-betikorik.

Tokiko Agenda 21 garatzeko lan taldeak sortu dira Soraluzen. Dagoeneko bi bilera izan dira eta lehenengoan 21 lagun izanik, bigarrenean 12 bildu ginen. Kabalista batek esango luke bi zenbaki hauek loturik daudela izenburuan dagoenarekin. Baina izenburuaren 21 horrek, XXI. mendean soraluzetarrok eduki nahiko genukeen ingurugiroaz informatzen gaitu. Soraluzeko herritar eta arlo ekonomiko guztiek ingurugiro-

az duten iritziak, posibilitateak eta egitasmoak aurkeztuz eta adostuz. Biztanle guztiok gara elur-jausia geldiarazten saiatu behar garen zuhaitzak, gero eta zuhaitz gehiago izan, motelagoa eta jasangarriagoa izango delako haren ibilbide hondatzailea.

Ingurugiroa hobetzeko ideia, estrategia edo ekintzak, gizartearen esparru guztietatik abiatu behar dira eta agintari erabakitzaileei eskeini. Aurretik ezin dugu jakin eskainitakoaren eta egingo denaren arteko erlazioa, baina argi dagoena da prozesu hau urrats garrantzitsuak izateaz gain, dinamika sortzaile baten menpe jarriko gaituela.

Zergatik ukatu aukera hau? Zer galtzen dugu? Herritarren partaidetzak ez duela aukera larregi jakinda, goaz politikari zuhaitz gehiago elkartzeko; kallean, dendetan, enpresetan, tabernetan erraz berba egiten duguna udaletxeko aretoetan entzun eta paperetan idatziz. Akaso plaentxiarrak bere herriagatik duen sentimenduagatik edo, baina lan taldean sortzen den giroan konplizitate nabari da, Soraluzen bizi garen konplizitatea. Bi lan taldeen eskuetan sei gairi buruzko lana: biodibertsitatea, lurzorua, garraioa, ura,...Ia lortzen dugun lan talde bat gai bakoitzarako.

## Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. urteko azken alia. Stop. ez da potentzia baina ahal dan egiten dogu. Stop. urte berrirako be gorde bihar da zeozer. Stop. ale honetan... Stop. galdetu dogu ia gabon egunian urtetzen daben jentia. Stop. eta baietz zu! .Stop. kartetan egin eta etxia bete jentek gaba pasatzia... Stop. gero eta gutxiago. Stop. zer egingo dotsagu ba. Stop. halakotxe leluak gara. Stop. zepeling on bat harra-pau barik... Stop. ezin pasau jai gaba bat sutonduan. Stop. baina laga deiguzen horrek kontuok. Stop. eta segi aliakin. Stop. alian badator Batasunaren proposamen laburtua. Stop. (Ibarretxe planik ez oindio). Stop. Eta bullyng-aren inguruko argi printza bat. Stop. eta Jabier Garmendia nekazaritza batzordeburu jarri dala berriz. Stop. eta abenduaren 31an Etixerat berriz kalia izango dala. Stop. jentia lagunza eske. Stop. eta Uruguain plazentziar bat oso estu dabilela. Stop. eta berri hobiak bebai. Stop. gabonetan umiendako dagan eskeintza. Stop. eta gaztiendakua ez da txikixagua. Stop. eta helduak?. Stop. helduak tabernara!. Stop. eta zaharrak?. Stop. zaharrak elizara!. Stop. eta gu?. Stop. ba hementxe, barikuan inprentan lanik egiten ez dabela eta gau pasa eginda! Eguberri on!



**Argitaratzailea:**

Pil-pilean Kultura Elkartea

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefona 943 75 13 04

comunidades.kzgunee.net/PilPileanKulturaElkartea/EU

pilpilean@euskalnet.net

**Erredakzio burua:** Egoitz Unamuno

**Erredaktoreak:** Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

**Publizitatea:** Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

**Logotipoa:** Jon Gabilondo (943751304 tel.)

**Banaketa:** Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

**Inprimategia:** Gertu Koop.

**Azala:** Pablo Galarraza

**Diseinua eta Maketazioa:** Aitor Madrid

**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

*Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariok esanen eta iritzien erantzunkizunik.*

*Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.*



SORALUZKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA



## Sutondoan

*Urtzeroko jardunari eutsiz, aurtengoan ere Gazte Asanbladak antolatuta hainbat kultura ekimen izango dira Gaztetxean.*

## Zorion agurrak



**Naroa Gil**  
Azaroaren 8xan  
Urtebete.  
Zorionak!  
Zorionak preioxal!  
musutxo asko!  
Markel eta gurasoak.



**Koldo Crespo**  
Azaroaren 24an  
4 Urte. Zorionak!  
Zorionak zure urte-  
betetzeari!  
Etxekoak eta batez  
be Ibon txikiak.



**Enara Agirre**  
Urtarrilen 10ean  
21 Urte.  
Zorionak!!!  
Muxu bero bat!  
Pilekuen partetik.



**Ibon Crespo**  
Azaroaren 12xan.  
2 Urte.  
Zorionak!  
Zorionak zure  
urtebetetzeari!  
Etxekoak.



**Jon Basauri**  
Urtarrilaren 5ian  
28 Urte  
Zorionak!!!  
Segi beti bezain  
jatorikilo!  
Pilekuen partetik.



**Xuban Catalan**  
Abenduaren 30ean  
Zorionak!!!  
Besarkada bat eta  
zorion muxuak!  
Pilekuen partetik.



**Btisam El Kanouni**  
Abenduaren 26xan  
5 Urte  
Zorionak!!!  
Muxu haundi bat!  
Asun eta Emilita.

### hildakoak

Seberiano Folgoso Grande  
Pilar Sierra San Emeterio  
Juan Manuel Heras Llanes

## Gutunak

### Gabonak

Badatoz gabonak. Honekin batera iragar-  
ki uholdeak nonnahi, telebista piztu eta  
txanpanak, jolasak, turroiak... hoietako  
baten "vuelve a casa vuelve a casa por  
navidad..." esaldia abesten dute. Euskal  
Herrian ere askotan erabiltzen diren  
hitzak dira, baina aurten ere milaka herri-  
tar gugandik urrun izango ditugu gabone-  
tan. Espainian, Frantzian, Mexikon...  
izango dira gabonetan, maite duten famili  
lagun eta herriitik urruti.

Lurdes, Regina, Pedro Jose, Angelua,  
Eloi, Juanjo eta beste milaka euskaldun  
herriitik urrun izango dira, gutxi gora  
behera euskal herritarren milaren bat  
ezingo dira beraien famili eta lagun  
artearen izan. Jende askok lasai igaroko  
ditu gabonak, txanpan eta turroi artean,  
datu hauei kasurik egiteke, beste etxe  
askotan ordean, ahulki hutsak izango dira  
mahai inguruan, horrenbeste maite duten  
seme, alaba, senar, ama... ez da bertan  
izango. Espetxean edo erbestean ihesi  
izango da, bere herriaren aldeko borro-  
kan, beraien ideologiagatik atxilotuta edo  
ihesari emanak.

Beno ba Olentzero hor doakizu nere aur-

tengo eskaria; (badakit azken urteotan ez  
dizudala gutunik idatzi ez pentsa zutaz  
ahaztuta nagoenik, baina inork baino  
hobeto dakizu zela diren kontuak!) Euskal  
Preso iheslari eta deportatu politiko guz-  
tiak Euskal Herriratzeari, askatasunez herri  
txiki baina maitagarri honen etorkizuna  
erabakiz, benetako bakearen bidean. Ez  
da erreza erreza izango baina gabon gauera  
aurreratu eta ekarri ahalko bazenitu, ez  
dakizu ondo zenbat irripa izango ziren  
gure etxeetan. Eta Soraluzetar guztiak  
animatzen ditut, ostiraleko arratsaldeko  
zortziretan izaten diren mobilizazioetan  
parte hartzea, eta bereziki abenduaren  
31-an urteko azken ostiraleko enkartela-  
dan plazara gerturatzera, denon artean  
errazagoa izango baita.

Besterik gabe besarkada bat denoi ahalik  
eta ondoen pasa gabonetako egunak, eta  
ez ahaztu ez garela denok izango gure  
etxeetan.

**Gorka Salaberria**



### IKASTAROAK

#### Musikoterapia-ikastaroa

Edukiak: Soinu- eta musika-fenome-  
noa ezagutzen hastea, musikotera-  
pearen kontzeptua, musikoterapiaren  
teknikak, esku-hartzeko modalitateak.  
Datak: 2005eko maiatzaren 27an eta  
28an. Tokia: Hezkide Eskolaren egoi-  
tza Donostian. Izena emateko epea:  
2005eko urtarrilaren 10etik maiatzaren  
19ra. Harremanetarako, 943 311474 /  
311475 telefonora deitu. Matrikula  
110,00 euro.

### LEHIAKETAK

#### Haurren eta Gazteen Astialdiko Begirale Ikastaroa

100 Orduko ikastaroa. Eskolak; otsaile-  
an: 19, 20 / 26, 27, martxoan: 5 / 19,  
20, apirilean: 9, 10 / 16 / 23, 24 maia-  
tzean: 7, 8. Izena emateko epea:  
2005eko urtarrilaren 10etik otsailaren  
14ra. Telefonoa: 943 311474 / 311475  
Hezkide Eskola / Heriz pasealekua, 82  
(apaiztegia) / Donostia

### SORALUZEKOAK

#### Etxebizitzak salgai

Etxea salgai herri erdialdean. 70m2  
ditu eta duplexa da. 652722360

Etxebizitza salgai Errabal kaleko etxe  
berrietan. Garajea eta ganbara barne-  
sarbidearekin. 687900114

Pisu berritu bat salgai Soraluzen.  
Sukaldea eta komunak amueblatuta.  
Garaje eta solairuartekoa eta txokoa  
(144 m2). 615779920

#### Lana

Santa Ana kaleko taberna berrirako  
(Irish Pub) kamareroa behar da.  
Esperientziaduna behar du.  
670541347 (Oskar)



Barra kargadore automatikoak  
eta makina bereziak

## ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@telex.es

etxehun@euskaltel.net

Gabon zorientsuak!!

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

## Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK  
ETA PROIEKTUAK  
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA  
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92  
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES



## Zer irizten dotsazu?

Gabonak etxean eta famili artean ospatzeko ohitura izan da beti. Azken urteetan gabon gabe-an tabernak irekitzen hasi dira eta gero eta jente gehiago da kalera irtetzen duena, gazteak batez ere. Horren gainean zer eritzi daukan galdetu diogu jendeari.

## Urtetzen dozu gabon gabian? Zer pentsatzen jatzu, etxian geratzeko eguna dala?




**Julita Ibarzabal**  
57 Urte  
Aseguru saltzailea

Gurian urtetzen dabe, loibak eta... Nik inoiz urten dot baina nahixago dot etxian geratzia. Etxian be hartu lei-kez traguak, kalian moduan, eta oso gustora egoten naiz. Baina bakoitzak nahi dabena egin daixala, inor kondizio-nau barik.



**Andoni Urizar**  
22 Urte  
Ikaslia

Neri ez doste lagatzen. Urtetzia nahi bai, baina...ya preguntau be ez dot egitten. Familixan egoteko eguna dala dinue baina nik uste dot denborak aldatu egitten dirala eta hori be aldatu lei-kela.



**Santos Elizburu**  
53 Urte  
Langilia

Gau horretan urtetzia ez da gauza barrixa. Gu lagun-en etxietara juaten ginan. Neri behintzat ondo pentsatzen jata urtetzia. Bakoitzak nahi dabena egin daixala, ez naiz baina ni gabonak larregi ospatzekua.



**Maria Jesus**  
Arrizabalaga  
59 Urte  
Dendaria

Ni lehengo erakua naiz, eta nahixago dot gurian urtetzen ez badabe, baina ez gara gu guraso gogorrak eta urtetzia nahi badabe lotuta ezingo doguz euki. Gabon zaharretan bai, guk sasoi hartan be urtetzen genduan eta.



**Anastasia Maiztegi**  
92 Urte  
Etxekoandria

Lehen etxietan alkartzen ginan eta errosarixua erreza-tzen genduan. Batzuk turroia eruaten zeben, beste batzuk arda botillia... etxekueri dana kargia ez emotiarren. Oingo gaztiak etxera juaten badira afarittara... amak panderua edo jo bihar.



**Aratz del Barrio**  
22 Urte  
Ikaslia

Bai, urtetzen dot. Lehen ez zan urtetzen jentiarri ez jakolako okurritzen urtetzia. Oin okurridu jaku. Kalian juergia baldin badago etxian zer egingo dogu ba? Urten eta ondo pasau.

## Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Urte berri on!!

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soralueze  
GIPUZKOA

## GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



# Batasunaren proposamenak "bakea du lehentasun nagusia"

Batasunak "gatazkaren konponbiderako proposamen berrituaren" aurkezpena egin zuen joan zen egunean herrian. Aurkezpenean, azken 25 urteotan marko berri baten alde Ezker Abertzaleak "bakardadean egindako borrokaren gogortasuna eta garrantzia" azpimarratu zuten, "gaur egungo estatus politikoaren krisia borroka horren ondorio" dela adieraziz. "Fase politiko berri baten" gaudela aipatu zuten eta fase politiko berri horretan, "Ezker Abertzaleak herri galdeketa ardatz eta bakea lehentasuntzat hartuta lan egingo duela". Anoetan aurkeztu zuen proposamenak, "ETAk Estatuarekin presoen gaia eta desarmea bakarrik negoziatu behar duela eta estatus politiko berriz indar politiko eta sozialek osatutako ordezkariak negoziatu behar dutela" dioela azaldu zuten.



## Bullyng-az berbetan gurasoekin



Abenduaren 15ean, bullyng-ari buruzko hitzaldia izan zen kirodegiko erakusketa gelan, Institutoko Keixeta Guraso Elkarteak antolatuta. Carmen Biain irakasleak baieztatu zuen gero eta bullyng kasu gehiago gertatzen dela. Honen arrazoia balore aniztasunean ikusten du Biainek.

Irakaslearen eritziz, gaur egun modolo eta eredu ugari jasotzen dituzte

haurrek telebista eta komunikabideetatik eta hauek ez dira onak; "balore berdinekin ikastetxeetan txoke egiten dute eta hor konfliktua sortzen da." Honi aurre egiteko, "etxean eta eskolatan kontrakultura lana egitearen eta eta gizarteak balore batzuk adostearen beharra" azpimarratu zuen. Hurrei "besteen lekuan jartzen erakutsi behar zaie"la adierazi zuen.

## SAPAKo langileak Andoainera

SAPAKo langileen batzordeko ordezkariak adierazi dutenez, enpresako zuzendaritzak eskeinitakoa onartzea erabaki dute azkenean. Erabakitakoaren arabera, datorren urtarrilaren 3an hasiko dira Andoaingo lantegian lanean.

## Kalteak Gabolatzeko etxebizitza batean




Joan zen abenduaren 14an, Gabolatze kaleko etxebizitza batean kalteak eragin zituen ondoko etxebizitza zahar bat botatzeko lanetan izandako istripu batek. Eskabadora lanean ari zela, zoruak behera egin eta ondoko horma aldameneko etxearen kontra bota omen zuen, alboko etxeko horma zati eta zutabeetako bat eraitsiz. Bizilagunen ordezkariak adierazi digunez, orainarte egindako behaketek ez omen dute uste zena baino kalte garrantzitsuagorik dagoenik erakutsi. Hala ere, ibai aldera eroritako hondakinak garbitu arte, etxearengan kalte larriagoak izaterik ezin omen da guztiz baztertu. Eraikuntza eta zulaketa etxearen aseguruarekin berbetan dihardute kalteak neurtu eta konpontzeko.

## Juanjo Urrutia egoera larrian

Juanjo Urrutia Uruguain bizi den soraluzetar errefuxiatua, gaixorik oso egoera larrian dagoela jakinarazi digute bere e.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa**  
zuri esker  
gracias a ti

Urte berri on!!

**Juan Mari**  
Arraindegia

Eguneroko arraina  
eta konjelatuak

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69



Gabon zoriotsuak!!



## Oskar Gabilondok alkate kargua hartu zuen astelehenean



EAJko Oskar Gabilondo zinegotziak herriko alkate kargua hartu zuen (orainartean funtziotan bakarrik zen alkate) joan zen astelehenean egin zen Udalbatzarrean. Gabilondok, EAJ eta EAKo kideen aldeko botuak jaso zituen. Kargua hartzerakoan, gobernukideei eskerrak eman eta gero, Alberto Sudupe zena izan zuen gogoan; "Alberto beti egongo da nere gogoan eta nere bihotzean ere bai". Bestalde, Jabier Garmendiak ere zinegotzi kargua hartu zuen Udalbatzar berean.

Kargu hartzeekin batera, Kirol eta Hezkuntza batzordeak eta Nekazaritza eta Ingurumen batzordeak lau batzor-

detan bereizteko erabakia hartu zuen Gobernu Taldeak (PSEEn aldeko botuarekin). Batzordeburuetan ere izan dira aldaketak; Jose Luis Badiola izango da Kirol Batzordeburu berria, Nekazaritzakoa Jabier Garmendia eta Hezkuntzak eta Ingurumenak lehengo batzordeburuak izango ditu, Maite Oregi eta Iker Aldazabal.

Bestalde, 2005-2008 bitartean garatuko den Euskararen Biziberritze Plana ere onartu zuen Udalbatzarrak, EAJ, EA eta SAHen aldeko 9 boturekin. PSE-Ek eta PPK aurkako botua eman zuten, Nafarroako eta Iparraldeko ikastolei bideratutako dirulaguntzak salatuz.

## Dendari eta administrariendako internet ikastaroak

Datozen hilabeteetan, dendari, administrari eta bestelako langileendako internet ikastaro egokituak eskeiniko dira KZ Gunean. Besteak beste; bankuko tramiteak egiten, posta elektronikoa erabiltzen, administrazio publikoarekiko harremanak landuko dira ikastaro hauetan. Interesatuak 900 500 900 zenbakira edo Udalera deituta eman dezakete izena.

Bestalde, abenduaren 27tik 30era bitartean arratsaldero KZ-Gunea zabalik izango da.

## Elkarretaratzea abenduaren 31an

Soraluzeko Etxerategi deituta, Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko elkarretaratzea egingo da Plaza Berrian. Etxerategi dei egiten die soraluzetar guztiei, preso- en giza eskubideen aldeko elkarretaratzean parte hartu dezaten.

## Elkarretaratzea abenduaren 31an



Gilako etxebizitza berriak dagoeneko salduta daudela jakinarazi digute Udalean. Hiru etxebizitza dira eraikitzen ari direnak eta 168.000 eurotik 180.000 euro arteko prezioan saldu dira.

Bestalde, dagoeneko hasita daude Gabolatx kaleko etxebizitza zaharrak eraisteko lanak.

## Agenda 21 atzeratu egin da



Joan zen abenduaren 14an Tokiko Agenda 21aren egin zen bigarren bilera bertan behera gelditu zen Gabolatzen izandako istripua zela eta. Hala ere bigarren bilera honetara hamarren bat herritar urreratu ziren eta Soraluzeko alor eta sektore ezberdinetan dauden gabeziak eta aukerak aztertzen jardun zuten bilerak iraun zuen bitartean. Hurrengo bilera urtarrilean deituko dutela adierazi zuten.

Instalazioak Berrikuntzak

**KIRU muntaiak**

*Urte berri on!!*

## Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

**Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.**

Amillaga, 5 20750 Bergara

Tfnoa 943 76 99 85

Eskuko tfnoa 615 70 27 65

Gabon zorientsuak!!

## HNOS. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)


# OITXURRI

## ARDAU-DENDA

Urte berri on!!

Gabolatz Kalea, 28  
20590 SORALUZE

☎ 605 768 151 (Naiara)  
☎ 667 479 350 (Roberto)



Urte berri on!!

Jose Antonio S.L.  
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49  
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)



## Lakuesta

### Optika

Ikusmen arazozen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea  
20590 Soraluze  
Gabon zoriontsuak!! Tfnoa 943 75 30 59

Urte berri on!!

## LAUDIN

### PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g Tf: 943752150  
138 Postakutxa Faxe: 943752118

**SORALUZE**

Gabon zoriontsuak!!



## IÑAKI

### IÑARRA

HARATEGI ETA  
URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Gabon zoriontsuak!!

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE

## FER. S.A.

### Industriak

Eskulanetarako  
Gabon zoriontsuak!!

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze  
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxe: 943 75 19 80 E-maila: [fer@nexo.es](mailto:fer@nexo.es)

## JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

### HORTZ

### KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA

Gabon  
zoriontsuak!!



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

## ARMENDIA

### JATETXEA

Urte berri on!!



Ezoz Auzoa, 11  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala








## VIDAL

### frutadenda

Urte berri on!!

Etxaburueta 2  
Tel. 943752055





# 2004 urtekarria



## Sakabanakea politikaren berri



URTARRILA

2004ko urte hasieran, Soraluzeko lau preso politikoaren egoeraren berri eman genuen. Sakabanaketa politikak eta espetxeetako baldintzek presoen eta euren senideengan ergiten duten sufrimenduari ahotsa eman genion.

## Bai Euskarari ziurtagiria



OTSAILA

Otsailaren 6an Bai Euskarari ziurtagiria jaso zuten herriko 29 gizarte eragilek. Konpromiso maila ezberdinekin, eragileok euren eguneroko jardunean euskara erabiltzeko asmoa adierazi zuten.

## Laskurain 2. mailako txapeldun



MARTXOA

Profesionalen bigarren urtean, Haritz Laskurainek Bigarren mailako Eskuz Binakako Txapelketa irabazi zuen Iruñeko Labriten. Chafferekin batera Medina eta Leitzari 22-9 irabazi zien.


## SAPako langileak protestan



APIRILA

SAPako zuzendaritzak langile denak Andoaingo lantegira aldatzeko jakinarazpena egin zuenean, langileek Soraluzeko lantegia ixtearen aurkako mobilizazioak antolatu zituzten, irudietakoa kasu.


## Gipuzkoako Ur Kontsortzioan



MAIATZA

Udalbatzarrak Soraluzeko uraren ziklo osoaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku jartzea erabaki zuen. Uraren tasak %30eko igoera jasan zuen eta hainbat herritarrek bere kexua agertu zuen.

## Iñurrietaren "Kuskue Tanden"



EKAINA

Iñaki Iñurrieta soraluzetar idazlea izan genuen herrian bere lehen liburua aurkeztzen. "Kuskue Tanden" Donostiako gazte pisu batean kokatutako nobela da. Plazentziarrez berba egiten duen pertsonaia bat ere bada.




## Galtzagorrien ekarpena jaietan



**UZTAILA**

Aurtengo jaietan Jai Herrikoï eta Partehar-tzaileen aldeko Hautserriko Galtzagorriak Jai Batzordeak ekarpen zabala egin zien Santiago Jaiei. Txarangak eta Gorrigain guneko ekital-diek asko bizitu zituzten jaiak.


## San Andres igoera abuztuaren 12an



**ABUZTUA**

Abuztuaren 12an jokatu zen San Andres Igoeraren 52. edizioa. Caja Rural taldeko Gorka Izagirre nagusitu zen lasterketan.


## Ikasturte berria ikastetxe berrian



**IRAILA**

Urtebete Olako lantegi batean egin ostean, irailaren 9an Ikastetxe eraberritan hasi zuten ikasturtea Plaentxi Herri Ikastetxeko 261 ikas-lek.


## Izartu eta lurrazpiko aparkalekuak



**URRIA**

Udalak, Izartu II-ren barruan Jaurlaritzatik jasoko duen 1.869.119 euroko dirulaguntzaren berri eman zuen. Horrekin batera Erregetxean lurrazpiko aparkalekuak egiteko asmoa ere aurkeztu zuen.


## Albert Sudupe hil da



**AZAROA**

Azaroaren 29an hil zen Alberto Sudupe, azken bost urteetan Sorluzeko alkatea izan zena. Herri osoak sentitu zuen bere heriotza eta ehundaka herritarrek eman zioten azken agurra alizkizunean.

## Elena Urrestarazuren aurkikuntza




**ABENDUA**

Elena Urrestarazu sorluzetarrakEpilepsia gaixotasunaren sendabiderako egindako aurkikuntzaren berri eman genuen. Bi urteko beka batekin Kanadan da .




# Pil-pilean Urtea Argazkitan 2004

MASAI TAILANDIARRA




SAGARDO EGUNA



GALTZAGORRIEKIN JAIETAN



GAZTAÑERRE AZOKA




BERTSO BAZKARIA



EUSKARA DENON KONPROMISOA



KILOMETROAK



UDALEKUAK









# Gaztetxoendako ekitaldi ugari Gabonetan

Aurtengo Gabonetan ekitaldi kultural ugari izango dira herrian. Gehienak haur eta gaztetxoei zuzendutakoak izango dira baina ez denak. Badago zerekin gozatu:

**Abenduak 22, eguaztena,**  
PATXIN ETA POTXIN PAILAZOAK  
17:30etan. (Kiroldegiko Frontoian)

**Abenduak 23, eguena,**  
HAURREN GABONETAKO  
PELOTA TXAPELKETA.  
20:00etan Kiroldegiko Frontoian

TRIKITIXA ETA PANDERO TALDEA  
17:00etan Zaharren Egoitzan

**Abenduak 24, barikua,**  
OLENTZERO ETA MARI DOMINGINEN  
ETORRERA  
11:00etan Plaza Barrixan

ABESBATZAREN EMANALDIA  
18:30etako mezan

**Abenduak 27, astelehena,**  
3X3 SASKIBALOI TXAPELKETA  
16:00etan Kiroldegian  
LHko 3. Mailatik gorako ikasleentzat.



Abenduaren hasieratik dago Gabonetako zuhaitza plazan.

**Abenduak 28, martitena,**  
IPUIN MUSIKALAK  
11:00etan (3-6 urtekoak) eta  
12:00etan (7-11 urtekoak)

**Abenduak 29, eguaztena,**  
TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIRA, patinatzerara 15:00etan zubitik. (LHko 5. Mailatik gora)

**Abenduak 30, eguena,**  
16:00etan zubitik. IRTEERA EIBARKO ETA  
BILBOKO PINETARA 16:00etan zubitik  
(LHko 1-2) eta 15:00etan (LHko 3-4)

**Abenduak 29/30/31**  
ESKULAN TAILERRAK LUDOTEKAN  
Goizeko 11:30etatik 13:30etara  
KZGunea / Ikastaroak  
(11:00etatik 13:00etara DBHko  
ikasleentzat)

**Urtarrilak 3, astelehena**  
EGUBERRIETAKO HAUR PARKEA  
(goizez eta arratsalde) kiroldegian

**Urtarrilak 4, martitena**  
KARAOKEA  
17:00etan, kiroldegian

**Urtarrilak 5, eguaztena**  
ERREGIEN KABALGATA

**Urtarrilak 8, martitena**  
ABESBATZAREN EMANALDIA  
Zaharren Egoitzan

*Antolatzaileak:*  
*Udala, Atxolin, Keixeta, Instituta,  
Pil-pilean Euskara Elkarte, Abesbatza eta Musika Eskola.*

## Jose Luis Feo bergararra garaile argazki rallyan



Joan zen zapatuan banatu zituen Kontrargi argazki taldeak XVI. Kontrargi Argazki Rallyko sariak. Iturria, Galipot, Ataria, ibaia eta zikinkeria... ziren gaiak. Honela gelditu da sailkapena:

1. Jose Luis Feo (Pol-pol, Bergara)
  2. Roberto Madariaga (Ilargi, Zaldibar)
  3. Luis Francisco Llavori (Zumaia)
- Herriko onena: Alfonso Cruz (Kontrargi, Soraluze)



Jose Luis Feo bergararraren argazkietako bat, Galipot kalearen irudi moldatua.





# Gaztetxeako Kultura Hamabostaldia

*Gaztetxeak Gabonetako Hamabostaldi Kulturalako egitaraua kaleratu du. Besteak beste, kontsumismoaren eta gartzelen aurkako asteak, kontzertuak, hitzaldiak, bertso afaria, film emanaldiak ikusi ahal izango dira.*

Urteroko jardunari eutsiz, aurtengoan ere Gazte Asanbladak antolatuta hainbat kultura ekimen izango dira Gaztetxean. Aldarrikapen sozialaren atalean, Kontsumismoa eta Gartzelen aurkako asteak azpimarratu behar, kultura arloan bertso afaria izango da berrikuntzarik nabarmenena baina musika kontzertu ugari ere izango da; soraluzetarrek osatutako hainbat taldek parte hartuko dute gainera.

Egitaraua hainbat hilabetetan zehar Gazte Asanbladako bileretan landutakoaren ondorio da. Egitarauarekin batera, azkenaldian Gaztetxean aurka izan diren erasoak (Bilboko Sorgintxulo da aurten itxi duten azken Gaztetxea) ere salatu nahi dituzte eta gazteek euren burua antolatzeke duten eskubidea aldarrikatu ere bai.



Gazte Asanbladako kideetako batzuk, Hamabostaldiko egitaraua eskutan hartuta.



## --Hamabostaldiko egitaraua--

**- ABENDUAREN 19an:**  
19:00etan Filmea "DOGVILLE"

**- ABENDUAK 23-25an:**  
Kontsumismoaren Aurkako Jardunaldiak  
**23-** 18:00etan Kontsumo basatiaren aurkako erakusketa  
**24-** 18:00etan Kontsumoaren aurkako erreziklaketa tailarra  
**25-** 18:00etan Kontsumo basatiaren aurkako erakusketa  
21:00etan Kontzertua: KALANA, PATADAZO, KAKA ZAHARRA eta HARRIKADA

**- ABENDUAK 26an:** 9:00etan Mendi garbiketa + Babajana (Gazte-txian elkartuko gara)  
22:00etan Kontzertua: SHARON STONER, POTESKIN eta DEJA BU.

**ABENDUAK 27an:** 20:00etan Antzerkia : "ELEBATOR"

**ABENDUAK 28an:** 21:30etan BERTSO AFARIXA Amaia Agirre eta Nerea Elustondo-rekin.

**ABENDUAK 29an:** 22:30etan Kontzertua: IZAERA eta NEUBAT

**ABENDUAK 30an:** 18:00etan Gaztetxeari buruzko mahaingurua  
20:00etan Poesia emanaldia Xabi Borda-ren eskutik.

**URTARRILAK 2AN:** 19:00etan Filmea: "La maldicion del escorpion de Jade" Woody Allen

**URTARRILAK 4-9an:** GARTZE-

LEN AURKAKO ASTEA

**4-** Hitzaldia: "Gartzelako bizipenak"  
**5-** Bideua Plaza Barrixan  
**7-** Kontzertua  
**9-** Bideua eta mahaingurua

**URTARRILAK 10-11an:**  
"CAPOEIRA"-ri buruzko hitzaldia

**URTARRILAK 12an:** 19:00etan Filmea "La naranja Mecanica" Stanley Kubrick

**URTARRILAK 14an:** 21:30etan GAZTETXEKO AFARIXA

**URTARRILAK 16an:** 19:00etan Filmea "Con la muerte en los talones" Alfred Hitchcock





## Sorako taldeen egoeraz

*"Eskertzekua da jubenilak zelako gogotsu jarraitzen daben, emaitzak oso txarrak izan arren!"*

**Joseba Etxeberria Soraluze F.T.ko lehendakaria Ezoziko futbol zelaian.**

Aspaldian emaitza eskasak lortzen ari dira Soraluzeko hiru futbol taldeak. Erregionala azkenengo postuetan, jubenila puntu bakar bat lortu gabe azkenengo eta kadeteak lau punturekin azkenengo. Presidentearengana jo dugu orain arteko denboraldiaz eta taldeaz berba egin diezagun. Baikor dago Joseba domekantalde nagusiak Azpeitian irabazi eta gero.

### Talde nagusixan garaipenaren ostian trankilago?

Bai, zulotik urten dogu eta konfiantzaz gare. Azkenaurreko lekuan genden eta oin laugarren jarri gara azkenetik hasitta. Hurrengo 3 partiduak oso inportantiak izango dira, aurkarixak gure antzera dabiz eta.

### Jubenilak eta kadetiak zela dabiz?

Jubenila gaizki. Jente oso gutxi dago taldian eta kadetietatik hartu bihar izaten doguz jokalarixak. Nik uste dot ilusio faltia dala. Adin horrekin nik partido bizperan lorik be ez neban egitten. Dana zan futbola orduan. Oin aukera gehixago dake, beste afizino eta lehentasun batzuk. Eskertzekua da baina taldian jarraitzen dabenak zelako gogotsu jarraitzen daben, emaitzak oso txarrak

izan arren. Kadetiak gustora dabiz. Ikas-teko edadia dake eta hortan dihardue.

*"Datozen hiru partiduetan emaitza onak lortzen bado-guz bigarren buelta ona ikusiko dogu! Ia jentia animatzen dan Ezozira!"*

### Ze egoeratan dago futbol zelai-xa?

Aria bota dogu potzuak egitten ziran gunee batzuetan baina hori soluzinua baino, partxia da. Guretako lehentasuna bedar artifizialezko zelaia egittia da. Ur instalazino berri bat egittia be komeni da.

### Zaletu aldetik zela dabil?

Lehen baino zale gitxiago igotzen da Ezozira. Foballisten ilusina eta afizinuana antzera doiaz, beheruntz. Lehengo taldia gaizki doianian jentia gitxiago juaten da, eta horregaittik be izango da. Oin datozen 3 partiduetan emaitza onak lortzen bado-guz bigarren buelta ona ikusiko dogu. Ia jentia animatzen dan eta taldia animatzera igo-tzen dan.

## EMAITZAK

### Futbola

-Abenduaren 19an  
Ikasberri 2 - SORALUZE 3 (Erreg.)  
SORALUZE 2 - Allerru 6 (Juben.)  
SORALUZE 1 - Aitzgorri 9 (kadet.)

### Esku pilota

Aitor Atxotegi

Azpeitin 22 eta 13 galdu zuen semifinaletan.

Iñaki Jauregi

Getxoko Txapelketan

22 eta 7 Galdu zuen Zaballarekin eta finaletik kanpo gelditu ziren.

### Atletismoa



### Gasteizko Maratoi Erdia

23 ZIGOR ESNAOLA 01:15:19  
289 UNAI LARREATEGI 01:26:23  
292 IAGOBA ZUBIAURRE 01:26:24  
336 CARLOS DE COS 01:31:57  
617 GUILLERMO GARCIA 01:33:58  
743 GONZALO ARIZNABARRETA 01:27:03  
785 JON PEIO 01:35:18  
827 KOLDO AZKORBEBEITIA 01:41:17  
1189 LUIS ARIZNABARRETA 01:34:37  
1406 AITOR LETURIONDO 01:45:31  
1447 JAVIER BRUÑA 01:46:05

## AGENDA

### Atletismoa

Urte-zahar Eguneako I. Herri Lasterketa. Arratsaldeko 17:30etan Udaletxetik. 5 kilometro inguruko hibilbidea.

### Futbola

urtarilaren 8an  
SORALUZE - Ilintxa (Erreg.)  
Burmendi - SORALUZE (Juben.)  
Aretxabaleta - SORALUZE (kadt.)

## Etxabe Harategia



Enskatxahalkia  
Bildotsa

Urte berri on!!

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375

## Mendata taberna

Urte berri on!!



### Berezitasunak:

Txipiroiak, Barazki Menestra,  
Gixauak...

Asteburuan plater konbinatuak

Enkarguak etxerako  
(baskariak eta afariak)

Kalebarren, 5

Tfnoa 943 75 13 87



# Inaxio Beristain Egaña

*"Eskerrik asko plazentziarrerri emondako konfiantziagaittikan!"*

Inaxio Beristain ojalaterua urtarrilean jubilatuko da. 50 Urte egin ditu Soraluzen Ojalatero lanetan eta ezaguna eta estimatua da makinatxo bat etxetan. Urte berriarekin bizitza berria hasiko du Inaxiok eta bejondeiola!

## Noiz hasi zinan iturgin lanian?

15 Urte pasatxo nejaukazen hasi nitzanian. Itziartik orduntxe etorri nitzuan, Jose eta Carlos ojalateruekin ikastera. 65 Eginda jauzkat oin.

## Juanitokin zela hasi zinan?

Elkarrekin ibili ginduz Txokoloneko obria egitten. Ni Josekin najabixan eta bera Eibarren Mujikakin. Soldauskatik etorri zanian zer egin da... "ipiniko juau ala?" eta 73an negoziua ipini genduan elkarrekin.

*"65 Urtekin norberak ez jok balixo lehen bezala! Urtiak ez juek barkatzen!"*

## Zure lanian zer da txarrena?

Prisaka ibiltzia dok txarrena, lana nasai amaittu ezinda ibiltzia. Hau amaittu eta beste nunbaittera juan bihar, andra bat diarka, bestia be diarka... danak ezin egin.

## Eta lanik onena?

Bestien lana hobia dok beti norberak dakana baino.

## Jentiakin harreman haundixa euki dozu.

Bai, euki egin bihar, bestela kitto. Zeozer gaizki daguala esaten bajuek belarrixak bajau e ta ixil-ixilik esandakua egin bihar.

## Zenbat etxe ezagutu dozu barrutik?

Mordo bat bai nik, gehixenak.

## Ez dozu pentzau memoria libururik idazterikan?

Ez, ez, ez... ez jakat nik liburuetarako astirikan.

## Edadiagaittik zoiaz jubilatzerabaina lanian aspertuta honezkero?

Baita hori be, aspertuta ere bai. 65



Inaxio Beristain Juanito Unamuno lankidearekin batera.

## Bertso Begiz

*Itziartikan etorri zana  
mutikotxua artian,  
Plazentziako ojalatero  
berrogeitamar urtian.  
Makinatxo bat on egin dozu  
Plazentziako partian,  
ta oin deskantsau eta gozatu  
eizu aspertu artian!*

Etxebarri

(doinua: Sekulan ez da...)

Urtekin norberak ez jok balixo lehen bezala. Urtiak ez juek barkatzen. Jarri belauniko, jeiki hadi, gero berriz ere jarri belauniko... gerrixak eta etxuek barkatzen.

## Oin ze plan dakazu?

Pasiau eta... zer egingo juau ba? Zereginak topauko jittuat, baina lanik ez najoiak egitttera, eginda najaok nahikua!

## Motorra saltzera zoiaz?

Ez, ez, motorra ez najoiak saltzera. Harekin noizipeinian perretxikotara juan da...

## Badaukazu Plaentxiatarrerri ezer esatekorikan?

Eskerrak emotia emondako konfiantziagaittik. Plzentziar asko ezagutu jittuat eta bertan geratu nitzuan, pentzaik hortikan.



ARRATE IRRATIA

asteartero  
12:40etan

Soraluzeko berriak  
zure etxean.

Urte berri on!!


Pil-pileanen eskutik.

**Bolia**

taberna

Urte berri on!!

Etخابurueta  
Tel.: 943 75 11 04  
20590 Soraluze





## Argazki zaharra



Iturria: Nikanor Iñurrieta

## “Ez bildurtu” futbol taldea 1935ean

Argazkian 1935. Urteko “Ez bildurtu” futbol taldea.

Goitik hasita ezkerretik eskubira; Sebastian Unanue, Jesus Garmendia (+), Jesus Gallastegi, Juan Lascurain (+), Celestino Txurruka, Lorenzo Epelde (+), Amancio Torrientes, Nikanor Iñurrieta, Jose M<sup>a</sup> Argarate. Makurturik; Perico Gallastegi (+), Juan Intxaurrealde (+), Jose Berrueta, Antonio Elizburu eta Jesus Leturiondo (+).

## Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

**Bi lagunendako  
afari mundial bat  
irabazi zeinke!!**

DEITTU

**943 75 13 04 ra**

Erantzuna: Teilatuko tximinia.

...eta irabazlea:  
**AMAIA ARGARATE**

**Aurreko  
alean...**



## Kontsumo kooperatiba

Gabon zoriontsuak!!



Tel.: 943 75 13 45

## ARRANO tabernia

Telefona 75 24 09


“Giro euskalduna eta sanua”

Gabon zoriontsuak!! **ETORRI ETA GOZATU**

**etxera**

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK






# Ugaraxo

*Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko*

## Badatoz Olentzero eta Mari Domingin







## EUSKARAREN EGUNA (abenduarien 3an)

Herri bat daramagu  
bihotzean.  
Hizkuntza bat  
mingainean.  
Denok ohiukatu dezagun  
aho batean:  
Mesedez,  
bizi dadin  
euskaraz egin!

Abenduaren 3an Hizkuntza Gutxiagotuen Nazioarteko Eguna ospatu zen. Hauetariko bat geurea dugu: Euskara.

Euskal Herrian ez da asko erabiltzen, jendeak erdara-ra jotzen duelako, alderantziz izan behar litzatekenean.

Geure hizkuntza berrezkuratzea nahi badugu, denok euskaraz egin beharko genuke.

Egun honetako goizean, dendarik-dendara ibili ginen gelan asmatutako bertsoak eskaparatieta ipintzen. Horietako bertso bat da goikoa.

Arratsaldean berriz, umiekin jolastera joan ginen Haur Hizkuntzako ikastetxera, euskerazko jolasetan jolastera. Jolas hauetara jolastu genuen: sagu-txiki, zubiri-zubiri eta aulkien jokura.

Umeek oso ondo pasatu zuten eta guk ere bai eurekin batera!





## TXIKI-INKESTA

# Badakizu zelakuak dian Olentzero eta Mari Domingin? zer eskatu dotsezu?

## EDURNE PROL 7URTE 2.MAILA

Bai, badakit zelakuak dian, gabonetan urtero etortzen dia eta eskolara. Bixak mendixan bizi dia. Nik Play Station bat eskatu dot eta Game Boy.



## MIKEL RECIO 7URTE 2.MAILA

Olentzerok traje beltza dauka, txapela abarrikak...Mari Dominginek txapel arraro bat dauka. Mendixan bizi dira. Game Boyrako Pokemon eskatu dot.



## MIKEL OREGI 7 URTE 2. MAILA

Badakit zelakuak dian ikusi izan dittu eta, mendixan bizi dia, eta gabonetan jeisten dira. Game Boy joku bat, Pokemon eta Play Stationa eskatu dot.



## NEREA SAN JOSE 6 URTE 1.MAILA

Badakit zelakuak dian, urtero ikusten dittut, baina ez dakit nun bizi dian. Nik la Princesa Anelis eta la Granja de playmobil eskatu dotxet.



## ELSA BERRUETA 6 URTE 1.MAILA. A

Bai ikusi izan dittut eskolara etortzen diako. Baina ez dakit nunguak diran. Nik Barby Ada Fantasia eskatu dot.



## JOSE ANTONIO MARTIN 6URTE 1.MAILA A


Bai ezagutzen dittut eskolara etortzen dia. Ez dakit nun bizi diran. Robot haundi bat eskatu dotset, gauzak hartzen dittuana.



## OLENTZERO TA MARI DOMINGIN gurekin kantari!







## IRTEERA (Iruñera)

Azaroaren 19an, 5. eta 6. mailakook oso interesgarria izan zen irteera bat egin genuen. Goizean, autobusa hartu eta Iruñeara iritsi ginen. Bertan, Planetariuma ikusi genuen: unibertsoa, izarrak, planetak, konstelazioak eta abar azaldu zitzaizkigun hango zeruan, robot erraldoi batez baliaturik.

Handik atera eta Japoniako herri bateko kopia den parke bitxi batean bazkaldu genuen.

Bazkal ondoren, autobusa hartu eta Olitera joan ginen. Bertan, Oliteko gaztelua ikusi genuen.

Gaztelu ondoan, harrizko arrautza erraldoi bat zegoen. Hau, izozkailu bezala



erabiltzen zuen aintzinako jendeak.

Gaur egun, gazteluaren parte asko berrizturik daude, bere garaian suak guztiz hondatu zituelako eta, gelditu ziren harri, altzariak..., jendeak lapurtu zituelako. Hala ere, beru-

nezko hodi zati batzuk gordeta dituzte, eta horiek ikusteko aukera izan genuen.

Gazteluko dorre guztietara igo, beheruntz begiratu eta erdi zorabiatuak gelditu ondoren, autobusa hartu eta etxeruntz abiatu ginen.

Irteera edarra!

## ----- OSTIRALA -----

Zergatik izango da ostirala gehien gustatzen zaigun eguna? Bideoa ikustera joaten garelako edo:

**“Ostirala iritsi da  
iritsi da ostirala  
pozez betetako eguna  
zatoz gurekin laguna  
mantalak etxera eta  
oporrak bi egunetan  
astelehenean berriz ere  
bilduko gara ikastolan  
laralara laralara...”  
abesten dugulako?**







Telefonodeibxobatsolketaxbeanjasokoduzu  
aukeratutakokilometrotarraEzdagodudarik,  
primerangeratukozaraaurtengoGabonetan!!!



# 943712412



135 €



68 €

# kilometrotarra



## IKERLEKU

PODOLOGIA ZENTROA

Oinetako gaixotasunak

Azterketa biomekanikoa

Kirol podologia

Neurrira egindako plantillak

Ikerleku Zeharbidea Bergara 943 76 07 84



# BADATUZ!

**OLENTZERO** eta  
**MARI DOMINGI**



## EGITARAU

**11.00**etan Txikien kalejira.

**12.30**etan Olentzero eta Mari Domingineri harrera: agurra, abestiak eta bertsoak.

**12.45**tan Opari banaketa.

Ondoren triki poteoa

Soraluze 2004

**ZORIONAK** eta **URTE BERRI ON**

# EZOZIA JATETXEA

Zatoz eta gozatu  
gure jakiak!



Zorionak eta urte berri on!

EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua  
eta aukera zabala kartara.

**Ezozia Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE**